

## **2007KO OTSAILAREN HAMASEIAN UDAL PLENOAK EGINDAKO EZOHICO BATZARRALDIKO AKTA.**

Zumaiako hirian, bi mila zazpiko otsailaren hamaseian, arratsaldeko zortzietan, Udaletxe honetako Biltzar Aretoan (Foronda Kultur Etxean), Udal Plenoa eratu da, ezohiko batzarraldia egiteko asmoz, aurrez ezarritako eguneko aztergaiari jarraituz. Garaiz eta behar bezala deituta, korporazioko kide hauek bertaratu dira:

### **LEHENDAKARITZA.-**

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA andrea.

### **ZINEGOTZIAK.-**

Asier ESNAL ALBIZU jauna.  
Manuel ZUBIA ARTABE jauna.  
Lide AMILIBIA BERGARETXE andrea.  
Mikel OLAIZOLA ELOSUA jauna.  
Andoni ETXANIZ OSA jauna.  
Joseba Josu ASPIAZU AZKARRAGA jauna.  
Mikel GARATE GOLMAIO jauna.  
Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA jauna.  
Abel YEREGUI SASIAIN jauna.  
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ jauna.  
Cristina FORCADA UNANUE andrea.

### **IDAZKARIA.-**

Miren ETXEZARRETA GARMENDIA.

Gair enpresako bi langile bertaratu dira ikusle gisa.

**1.- ZUMAIAKO PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN 1.go ZENBAKIDUN ALDAKETA PUNTUALAREN TESTU BATERATUAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA. ALDAKETA PUNTUALAREN XEDEA, H.E. 12 (E.U. 12.2) ESPARRUKO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK 1.go SEKTOREA (PUNTANUETA II-ra) LEKU ALDATZEA, E.U. 12.2 (TORREAGA)-ren BERRANTOLAKETA, ETA HIRIGINTZ ARAUEN 34.3 ARTIKULUAREN ZEHAZTAPENAK OSATZEA DA.**

Udal plenoa eratu ondoren, alkate-presidenteak udal teknikarien txostenaren berri eta, 2007ko otsailaren 12ko ebazpen-proposamen gisa aurkezten den Hirigintzako Batzordearen Irizpenaren berri eman du.

## **UDAL TEKNIKARIEN TXOSTENA:**

### **ZUMAIAKO UDALA** **HIRIGINTZA DEPARTAMENTUA** **TXOSTEN TEKNIKOA, 06/07 zk.**

**PROIEKTUA: ERAIKUNTZA:**

**PLANGINTZA:** ZUMAIAKO ARAU SUBSIDIARIOEN 1.go

ALDAKETA

**KOKAPENA: LURZATIA:** TORREAGA-PUNTANUETA II

**AREA:** EU 12.2 (HEU 12) / 1 SEKTOREA 1

(PUNTANUETA II)

**FASEA:** TESTU BATERATUA

**ERAGILEA:** ZUMAIAKO UDALA

**TALDE EGILEA:** LUCIANO PAGAEGI, ARKITEKTOA

**ONIRITZIAREN DATA:**

**SARRERA ERREGISTROKO DATA:**

**TXOSTENAREN DATA:** 07/02/12

### **1.-AURREKARIAK.**

Ikus ondorengo txosten teknikoak:

06/01/16KOA, 09/06 zenbakiduna, hasierako onarpenari buruzkoa.

06/05/22KOA, 40/06 zenbakiduna, behin behineko onarpenari buruzkoa.

Ikus 06/05/09ko Hirigintza Hitzarmena “Promociones Torreaga S.L.”  
Merkataritza sozietatea (Altuna y Uria S.A., Construcciones Galdeano S.A.) Torreaga  
S.A. Fundiciones eta Zumaiako Udalaren artekoa.

### **2.- IRUZKINAK.**

Txostenaren xede den dokumentua ekainaren 27ko 142/1997 Dekretuaren 6 c) atalaren arabera idatzi zen, 121.2 (Torreaga) Exekuzio Unitateko Babes Ofizialeko Etxebizitzak 1. Sektorera (Puntanueta II.ra) aldatzea ahalbidetzeko.

Behin behineko onarpenaren ondoren, Euskal Herriko Lurralde Antolamenduko Batzordeak (2006ko urriaren 2an egindako Gipuzkoako Planeamendu eta hiritartze atalaren 6/2006 saioan) eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak (2007ko urtarrilaren 12ko sailburuaren ebazpenean), biek ere, aldeko txostena eman dute bai Zumaiako Arau Subsidiarioen 1.go aldaketarentzat bai eta Babes Ofizialeko Etxebizitzak 12 Hirigintza Eremitik ( 12.2 E.U) 1.go Sektorera aldatzeko asmoarentzat ere. Funtsezkoak ez diren ohar txiki batzuk egin dituzte, eta horiek behar bezala zuzenduta jaso dira Testu Bateratuan.

Azterketak eta oharrak honako hauek dira:

## 2.1.-Euskal Herriko Lurralde Antolaketaren Batzordea

g) 17/1994 Legean ezarritako BOEn estandarrak betetzea. Aldeko txostena.

h) Hirigintzako Arauen 34.3 artikulua aldatzea: I. oharra

“(…) bizitegirako guztizkoa 50 etxebizitza baino gehiagokoa denean hiri lurrean edo eta lurzoru urbanizagarrian (...)” ipintzen duen lekuan

ipini behar du “(...) bizitegirako guztizkoa 50 etxebizitza baino gehiagokoa denean hiri lurrean eta kasu guztietan urbanizagarrian (...)”

i) Lurraldearen Arloko Plana: Ertzen eta ibaien antolaketa: aldeko txostena

j) Espazio libreak: II. oharra.

12.2. E.U. Torreagako hirigintza fitxan txostenak baldintza bat jaso beharko du; garapen planeamenduak espazio libretarako erabili dezala gutxienez gaur egungo Arauetan jasotzen den antzeko azalera.

( Testu Bateratuaren 5., 8., eta 22. orrietan sartu da(hirigintza fitxa))

k) Itsasertz Legea: Aldeko txostena.

l) Uren Zuzendaritza: Aldeko txostena baina ondorengo baldintza hau betetzeari erabat lotua.

“(…) Dagoen arrisku egoera kontuan hartu beharko da eta bermatu egin beharko da, ekintzak garatzen diren bitartean bai eta gero horiek irauten duten bitartean ere, babes nahikoa izango dutela eta segurtasuna izango dela, eta ez duela areagotuko ingurua urpean gelditzeko arriskua (...)”

(Testu Bateratuaren 22. orrian jaso)

2.2.-Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila: Aldeko txostena. Baldintza batekin, hau da, hirigintza fitxan aurreikusitako etxebizitzaren %20ko igoera antolatutako inguruan egin dadila.

(Testu Bateratuaren 24. orrian jaso)

2.3.-Gipuzkoako Foru Aldundia.

- c) Espazio libreen kuantifikazioari dagokionean hirigintza fitxa grafikoaren eta idatzizkoaren artean dagoen kontraesana zuzendu eta konpontzea.

(Testu Bateratuaren 5., 8. eta 22. orrietan sartua)

- d) Biribilgunea definitzea N634 errepidea eta bere 14 saihesbidearen Sistema Nagusiaren parte gisa (Exekuzio Unitateari atxikia)

(Testu Bateratuaren 6., 10., 21. eta 22. orrietan sartua)

### **3.-ONDORIOAK.**

Testu Bateratuaren aldeko txostena ematea eta Udalbatzara bideratzea Foru Aldundira iritsi baino lehenagoko tramitea egiteko:

4.-Hala ere, Batzordeak erabakiko du udalaren intereserako egokiena zer den.

ZUMAIA, 2007ko OTSAILAK 12.-LUCIANO PAGAEGI BILBAO, ARKITEKTOA.

### **2007ko OTSAILAREN 12ko IRIZPENA, HIRIGINTZA BATZORDEARENA:**

**ZUMAIKO PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN 1. ALDAKETA PUNTUALAREN TESTU BATERATUA ONARTZEARI BURUZKOA. ALDAKETA PUNTUAL HORREN XEDEA DA 12 H.E. (12.2 E.U.) TORREAGA ESPARRUKO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK 1. SEKTORERA (Puntanueta II.ra) ALDATZEA, 12.2 E.U. (Torreaga) BERRANTOLATZEA ETA HIRIGINTZAKO ARAUEN 34.3 ARTIKULUAN JASOTAKO ZEHAZTAPENAK OSATZEA.**

### **AURREKARIAK**

1.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2007ko urtarrilaren 30ean egindako bileran erabaki zuen **12 H.E. (12.2 E.U.) TORREAGA ESPARRUKO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK 1. SEKTORERA (Puntanueta II.ra) ALDATZEKO 12.2 E.U. (TORREAGA) BERRANTOLATZEKO ETA HIRIGINTZAKO ARAUEN 34.3 ARTIKULUAN JASOTAKO ZEHAZTAPENAK OSATZEKO, ZUMAIKO PLANEMANDUKO**

**ARAU SUBSIDIARIOEN 1. ALDAKETA PUNTUALARI** dagokion espedientearen behin betiko onarpena atzeratzea.

.- Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailburuaren aurrean Udalak aurkeztutako birjarpen errekurtsua erabaki arte.

.- Eta hala dagokionean, akordioaren azalpenetan jasotako aldaketa eta zuzenketak sartu arte.

2.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintza departamentuko ordezkariak eta Udaleko ordezkariak izan zuten bileran, aldaketa puntuala behin betiko onartzeko jarraibideak zehaztu ziren.

a) Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailburuaren 2007-01-12ko Agindua gehitzea: agindu horretan ONETSI egiten du Udalak aurkeztutako birjartze errekurtsua, babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko lurzoru estandarra 12 H.E. hirigintza esparruko 12.23 E.U. Torreagatik 1. sektorerara (Puntanuetan Ilra) transferitzeko baimena ukatzearen aurrean jarritakoa.

b) Arau Subsidiarioak berrikusteko dokumentuari antzemandako akatsa zuzentzea, hain zuzen ere “berdeguneak eta espazio publikoak” izeneko atalari dagokionez, jabetza publikoari buruz bakar-bakarrik ari dela ulertuta, dokumentazio grafikoan jasotzen den bezala.

c) 1. Aldaketa Puntualaren Testu Bateratua erredaktatzea eta bertan jasotzea zuzenduta, 2007-01-30eko Diputatuen Kontseiluko akordioaren azalpenetan ezartzen diren baldintzak.

d) Aipatutako testua Udaltzako Osoko Bilkuran onartzea eta Diputatuen Kontseiluari eskatzea atzerapena bertan behera utzi eta behin betiko onar dezala 1. Aldaketa Puntuala, Testu Bateratuarekin bat datorrena.

## **IRIZPENA**

Ondorioz, Hirigintza Batzardeak 2007ko otsailaren 12an egindako bileran **Irizpen hau onartzea** erabaki du.

Aipatutako aurrekarien arabera egin da Testu Bateratua, orain hori Udaltzako Osoko Bilkuran aztertu beharko da eta honek onartzeko erabakia hartu beharko du korporazioko kideen legeko gehiengo absolutuarekin, eta ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundira bidali beharko du etetea altxatzeko eta Testu Bateratuaren arabera, 1. Aldaketa Puntuala behin betiko onartzeko.

Korporazioko kideek eztabaida luzea izan dute gaiaren inguruan eta iritzi trukea izan da bertaratu den publikoarekin ere.

Bozketa eginik;

Aldeko botoak: 7 (5 EAJ eta 2 PSOE)

Kontrako botoak: 1 (EB-BERDEAK)

Abstentzioak: 5 (3IZUSTARRI eta 2 EA)

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47,3) artikulua legez hala ezarrita, korporazioko kideen gehiengo osoaren quorumarekin

ERABAKI DA:

**1.- ZUMAIKO ARAU SUBSIDIARIOEN 1. ALDAKETA PUNTUALAREN** Testu Bateratua onartzea. **ALDAKETA PUNTUAL HORREN XEDEA DA 12 H.E. (12.2 E.U.) TORREAGA ESPARRUKO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK 1. SEKTORERA (Puntaneta II.ra) ALDATZEA, 12.2 E.U. (Torreaga) BERRANTOLATZEA ETA HIRIGINTZAKO ARAUEN 34.3 ARTIKULUAN JASOTAKO ZEHAZTAPENAK OSATZEA.** Aldaketa horrek barne hartzen ditu 2007ko urtarrilaren 30eko Diputatuen Kontseiluan hartutako akordioaren azalpenetan zehaztutako aldaketak eta zuzenketak baita Arau Subsidiarioak Berrikusteko dokumentuan “berdeguneak eta espazio publikoak” izeneko atalean ikusi den akatsa zuzentzea ere, puntu hori jabego publikoari buruzkoa bakar-barrik dela ulertuta, dokumentazio grafikoan jasotzen den bezala.

2.- Dokumentazioa Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, eta Diputatuen Kontseiluari eskatzea, etetea altxatu eta behin betiko onar dezala 1. Aldaketa Puntuala, Testu Bateratuarekin bat datorrena.

**2.- ZUMAIKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO E.U. 12.2 TORREAGA EXEKUZIO UNITATEKO BARNE ERREFORMARAKO PLAN BEREZIAREN BEHIN BETIKO ONARPENA, BIDEZKO BADA**

Alkate presidenteak udal teknikarien txostenaren berri eta 2007ko otsailaren 12ko ebazpen proposamena gisa aurkezten den Hirigintzako Batzordearen Irizpenaren berri eman du.

**INFORME DE LOS SERVICIOS TECNICOS MUNICIPALES:**

**ZUMAIKO UDALA**

**HIRIGINTZA DEPARTAMENTUA**  
**TXOSTEN TEKNIKOA, 07/07 zka.**

**PROIEKTUA: ERAIKUNTZA:**

**PLANGINTZA:** Barne Erreformako Plan Berezia.  
**KOKAPENA: LURZATIA:** E.U. 12.2 TORREAGA  
**AREA:** H.E. 12  
**FASEA:** BEHIN BETIKO ONARPENA  
**ERAGILEA:** PROMOCIONES TORREAGA S.L.  
**TALDE EGILEA:** URKAIN S.L. / JON ORUE  
**ONIRITZIAREN DATA:**  
**SARRERA ERREGISTROKO DATA:** 06-06-15  
**TXOSTENAREN DATA:** 07-02-12

**1.-AURREKARIAK.**

Hirigintzako markoa:

-Zumaiako Planeamenduko Arau Subsidiarioen 1. aldaketa 12 H.E (12.2 E.U.) Torreaga esparruko babes ofizialeko etxebizitzak 1. sektorerara aldatzeari buruzkoa, 12.2 E.U. berrantolatzeari buruzkoa eta behin betiko onarpenaren zain dauden Hirigintzako Arauen 34.3 artikuluko zehaztapenak osatzeari buruzkoa.

- Promociones Torreaga S.L./Zumaiako Udala Hirigintza Hitzarmena.

- Promociones Torreaga S.A./Zumaia Lantzen S.A. Hirigintza Hitzarmena.

-Babes Ofizialeko Etxebizitzak Puntanuetara aldatzeko eskaera, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailera bidali dena.

-E.U. 12.2 Torreagako Barne Erreformako Plan Bereziaren hasierako onarpena 06/07/27ko 63/06 txosten teknikoaren arabera.

**2.- IRUZKINAK**

- 2.1.-Udal teknikarien txostenarena.

Memoriaren dokumentazioa aurkeztu du, Etapen plana, Ekonomia eta Finantza Azterketa, Ordenantza Arautzailea, Informazio Planoak eta Antolaketa Planoak, Lurzoruaren Legearen ( RD 2159/1978) Planeamenduko Araudiaren 85. artikulua eta horrek daraman 74. artikulua arabera.

- 2.1.-Antolaketaren emaitza xehetasunez emana:

Espaloiak eta oinezkoen pasealekuak..... 1.662 m<sup>2</sup>.  
 Bideak eta aparkalekuak..... 2.083 m<sup>2</sup>.  
 Komunikazio sistema nagusia..... 3.063 m<sup>2</sup>.  
 Jabego pribatua azalera erabilera  
 Publikorako zorrarekin  
 Erabilera publikoa azalera..... 4.897 m<sup>2</sup>. > 3.698,50 (T.  
 Bateratua)  
 Espazio berdeak..... 4.465 m<sup>2</sup>. > 3.179,20 (T.  
 Bateratua)  
 Guztira..... 9.362 m<sup>2</sup>. > 6.877,70 m<sup>2</sup>. (T.  
 Bateratua)  
  
 Ataripeak..... 462 m<sup>2</sup>.  
 Aparkaleku kopurua azalera..... 91 Uds.  
 Ekipamendu publikoaren lagapena..... 560 m<sup>2</sup>.

- 2.2.-Eraikitze lur sailen emaitza:

M <sup>2</sup> .	Bizitegirakoa	Merkataritzakoa	Garajeak/trastelekuak	Sabai eraikigarria BEPB	Sabai eraikigarria Arau Subs aldaketa.
1 lursaila	14.481	1.599	11.603	27.683	
2 lursaila	864	-	216	1.080	
3 lursaila	8.250	911	2.881	12.042	
GUZTIRA	23.595	2.510	14.700	40.805 <	42.155
Arau Subs aldaketa.	23.595	2.500	16.000	42.155	

- 2.3.-Erabilpenen emaitza:

M <sup>2</sup> .	Bizitegirakoak	Merkataritzakoak	Garajeak/trastelekuak	Sabai eraikigarria BEPB	Sabi eraikigarria Arau Subs 1. Aldkt.
Libreak	22.731	2.510	14.484	39.725	
Babes Ofizialekoak	864	-	216	1.080	
GUZTIRA BEPB	23.595	2.510	14.700	40.805 <	42.155
GUZTIRA ARAU SUBSIDIARIOEN 1. ALDAKETA	23.595	2.500	16.000	42.155	



Konparaziozko azterketaren emaitza da Barne Erreformako Plan Bereziak oinarrian betetzen duela antolamendu juridiko eta hierarkikoa, hau da, lehen aipaturako Zumaiako Arau Subsidiarioen 1. Aldaketa.

- 2.4. Udalaren lagapenen emaitza

-Inguruko lagapen azalera guztiak, doan, kargetatik libre eta erabat urbanizaturik unitate osoko Urbanizazio Proiektuak ezartzen dituen aurreikuspenekin bat etorriz eta behin betiko egiteko ezarritako epeekin ere bat etorriz.

-Biribilgune berriak behar dituen lursailak (14 Komunikazio Sistema Nagusia N634 errepidea).

- 560 m<sup>2</sup> ere lagatzekoak izango dira, estrukturalki eraiki direnak, instalakuntza guztien harguneekin (argindarra, ura eta saneamendua) eta behin behineko itxitura blokeekin edo trenkadarekin P1 planoan adierazitako erdi sotoko solairuan. Gizarte eta kulturako ekipamenduetarako.

-Lursail pribatuaren gainean erabilera publikorako zorra ezarriko da ataripeetan eta barruko plazan.

-Aprobetxamenduaren % 10 urbanizazio kargetatik libre edo eta horren balioa dirutan.

- 2.5.-Ekonomia eta Finantza azterketa gutxi gorabeherakoa da.

2.2.-Foru Aldundiaren Bide Azpiegituren txostena: Aldeko txostena.

2.3.-Itsasertz Zuzendaritza Nagusiaren txostena: Ohar batzuk egin dira (txostena honekin batera doa).

### **3.-ONDORIOAK.**

Behin betiko onarpenerako aldeko txostena.

### **4.- BALDINTZAK.**

1.- Jose Maria Alkorta Mendizabal, Ricardo Javier Azkue Yeregi (Ucin pabilioien izenean) eta Jose Manuel Larreategi Aizpuruak aurkeztutako alegazioa gaitzestea, alegazioen arrazoia, azalerako akatsa, zehaztea ez dagokiolako 12.2 E.U 12 Hirigintza Eremuaren Barne Erreformako Plan Bereziari baizik eta inguruaren kudeaketa proiektuari. Alegazioak aipatutako proiektu horren tramitean egitea tokatzen da.

2.-Azalpenen ataleko alderdiak eta jendaurreko epealdian jasotzen direnak (Itsasertz Zuzendaritzaren txostena) BEPBren Testu Bateratu batean jaso beharko dira gehienez ere 15 eguneko epean, Itsasertz Zuzendaritzan izapidetu dadin eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

2.-Zumaiako Arau Subsidiarioen 1. Aldaketa behin betiko onartzea

5.-Hala ere, Udal korporazioak erabakiko du udal interesetarako egokiena zer den.

ZUMAIA, 2007ko OTSAILAREN 12an.-LUCIANO PAGAEGI BILBAO,  
ARKITEKTOA

**2007ko OTSAILAREN 12ko IRIZPENA, HRIGINTZA BATZORDEARENA:**

**HIRIGINTZA BATZORDEAREN IRIZPENA, ZUMAIKO  
ARAU SUBSIDIARIOETAKO 12.2 TORREAGA EXEKUZIO  
UNITATEKO BARNE ERREFORMARAKO PLAN BEREZIAREN  
BEHIN BETIKO ONARPENARI BURUZKOA.**

**AURREKARIAK**

1.-2006ko ekainaren 9an, PROMOCIONES TORREAGA S.Lk hala eskatuta 12.2 E.U. TORREAGA EXEKUZIO UNITATEKO BARNE ERREFORMARAKO PLAN BEREZIA aurkeztu zen Udaleko Sarrera Erregistroan.

Data berean bidali zen agiri hori Gipuzkoako Foru Aldundira, garapen iraunkorrerako departamentura, uztailearen 22ko 183/2003 Dekretuan xedatutakoaren arabera ingurumen inpaktuari buruzko aurretik txostena egin zezan.

Ez zen txostenik jaulki epearen barruan eta izapideari jarraitu zitzaion:

2.- 230/06 zenbakiko Alkatearen ebazpenean, 2006ko abuztuaren 12koan, honako hau erabaki zen:

.- Hasierako onarpena ematea Zumaiako 12.2 E.U. TORREAGA EXEKUZIO UNITATEKO BARNE ERREFORMARAKO PLAN BEREZIAri, PROMOCIONES TORREAGA S.Lk sustatutakoa eta Jon Orue Etxebarria abokatuak eta Ramon Uribe Etxebarria eta Jose Francisco Antia Etxaniz arkitektoek idatzitakoa udaleko txosten teknikoarekin bat etorrira.

.- Hamabost eguneko jendaurreko informazio epea zabaltzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta probintzian hedapen handienetakoa duen egunkari batean azken iragarkia jartzen den egunaren biharamunetik hasita.

.- Eremu horretako jabekideei zuzenean jakinaraztea. Epealdi horretan espedientea Zumaiako Udaleko idazkaritzan egongo da, nahi duenak aztertu eta alegazioak aurkeztu ahal izateko.

4.- Epealdi horren barruan hiru alegazio aurkeztu dira:

ALEGAZIO-EGILEA	DATA	ZERGATIA
Jose María Alkorta Mendizabal jauna	2006-09-13	Azalera akatsa
Ricardo Javier Azkue Yeregui jauna (Ucin pabilioien administratzailea )	2006-09-13	Azalera akatsa
Jose Manuel Larreategui Aizpurua jauna (URPEren izenean eta ordezkartzan ).	2006-09-15	Azalera akatsa

5.- Gipuzkoako Itsasertz Zerbitzuaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren errepideen departamentuko txostenak bilduta, honakoa diote:

.- Errepideetakoa, 2006-10-31an jaso, aldekoa da.

.- Itsasertz Zuzendaritza Nagusikoak, 2007-01-22an jasoak, kontuan hartzeko 5 puntu biltzen ditu:

- f) Itsaso eta lehorraren arteko mugatze lerroa egoki irudikatzea.
- g) Planaren memorian Itsasertz Legearen eta haren araudiaren erreferentzia eranstea.
- h) Ordenantzen baitan Itsasertz Legearen mugak jasotzea
- i) Urpean gera litezkeen eremuetan eraikinak proiektatzeko aukerari buruz gogoeta egitea
- j) Baimena lortzea euri-urak Urola ibaian isurtzeko

6.- Udaleko zerbitzu teknikoak alegazioen berri eman du eta Itsasertz zerbitzuaren puntuak testuan sartu dira behin betiko onarpena emateko.

7.- Indarrean dauden legeekin bat etorrira, ekainaren 30eko 2/2006 Lurzoru eta Hirigintzako Legeak honako izapidea eskatzen du Plan Bereziak onartzeko (97. art.):

PLAN BEREZIAK	HASIERAKO ONARPENA	JENDAURREKO ERAKUSTALDIA	BEHIN BETIKO ONARPENA
<i>12.2 TORREAGA EXEKUZIO UNITATEKO BARNE-ERREFORMAKO PLAN BEREZIA</i>	DEKRETUA	20 Egun GAOn eta probintzian gehien zabaltzen den egunkarian	UDALBATZAREN OSOKO BILKURA 3.000 biztanle baino gehiagoko udaletan

Aintzat hartuta 12.2 TORREAGA EXEKUZIO UNITATEKO BARNE ERREFORMARAKO PLAN BEREZIAren hasierako onarpena 2/2006 Legea indarrean sartu aurrekoa izan zela, aipatutako Legearen 2.2 Xedapen Iragankorra aplikatu beharko litzateke.

Ordenazio xehakatuko planei buruz 2.2 Xedapen Iragankorrak ezartzen duenez, Legeak xedatzen duenaren arabera onartu beharko dira behin betiko.

Ingurumen Inpaktuaren Azterketari dagokionez, ez da bidezkoa 2/2006 Legearen arabera, Plan Berezi honek ez duelako eraginik lurzoru urbanizaezinean.

Ondorioz, UDALBATZARI dagokio Plan Berezia behin betiko onartzea, Zumaia 3.000 biztanle baino gehiagoko udalerria delako.

## IRIZPENA

Beraz, 2.007ko otsailaren 12an egindako bileran Hirigintza Batzordeak erabaki du irizpena eta ondoren jasotzen den ebazpen proposamena onartzea.

Bozketa eginik;

Aldeko botoak: 7 (5 EAJ eta 2 PSOE)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 6 (3IZUSTARRI ; 2 EA eta 1 EB-BERDEAK)

#### ERABAKI DA:

1.- Udaleko zerbitzu teknikoen txostenarekin bat etorrira ebaztea aurkeztutako alegazioak.

2.- Behin betiko onartzea Zumaiako 12.2 E.U. TORREAGA EXEKUZIO UNITATEKO BARNE ERREFORMARAKO PLAN BEREZIA, PROMOCIONES TORREAGA S.L.k sustatutakoa eta Jon Orue Etxebarria abokatuak eta Ramon Uribe Etxebarria eta Jose Francisco Antia Etxaniz arkitektoek idatzitakoa, udaleko txosten teknikoarekin bat etorrira.

3.- Sustatzaileek 15 egun baino lehenago Zumaiako Udalera bidali beharko dute agiri bat 2007-01-22an jasotako Itsasertz Zuzendaritza Nagusiaren txostenean eta udaleko txosten teknikoaren azalpenetan esandakoak bete direla erakusten duena, Itsasertz Zuzendaritzan izapidetu eta GAOn argitaratzeko.

4.- Akordio hau ez da eraginkorra izango Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak behin betiko Zumaiako Arau Subsidiarioetako 1. aldaketa puntuala (12 HE 12.2 EU Torreaga) onartu arte.

5.- Zumaiako 12.2 E.U. TORREAGA EXEKUZIO UNITATEKO BARNE ERREFORMARAKO PLAN BEREZIAREN Dokumentazioa Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea argitaratu aurretik hirigintzako planeamenduko Administrazio Erregistroan uzteko.

6.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea behin betiko onarpenaren akordioaren eduki guztia edo gutxien gutxienik hirigintzako arauak, zehaztu beharko da Gipuzkoako Foru Aldundiko hirigintzako planeamenduko administrazio erregistroan utzi dela dagokion hirigintza plana dagokion eraginak izan ditzan eta indarrean sar dadin. Behin betiko onarpenaren akordioa gainera, Gipuzkoan zabalkunderik handiena duen egunkarian argitaratuko da.

7.- Interesatuei akordio honen berri ematea legezko moduan.

Beste gairik izan gabe, arratsaldeko bederatzia eta erdia direnean, Alkate andreak batzarraldia amaitutzat eman du, eta nik, idazkaria naizen aldetik, fede eman dut.

ALKATEA

IDAZKARIA